UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

**Espediente kodea**
2014OLHA0002

**ENPRESA SUSTAPENEKO EDO ETA ENPRESA ARLOKO ZERBITZUETARAKO TEKNIKARIEN LAN-POLTSA ERATZEKO HAUTAKETA PROZESUA**

**2014-02-21EAN EGINDAKO ARIKETAREN BEHIN BETIKO EMAITZAK**

**Erreklamazioak**

Behin-behineko emaitzak argitaratu eta erreklamazioak aurkezteko epean hainbat hautagaik ariketaren balorazioa ikusteko eskaera egin du. Horren haritik, erreklamazio bat aurkeztu da.

Erreklamazio-idatzian lehen zatiko (test ariketako) bi galderen aurkako erreklamazioa aurkeztu da:

- Batetik, erreklamazioak dio 21. galderaren erantzun zuzen gisa c) baloratu dela, baina c) dela erantzun zuzena.
- Bestetik, erreklamazioak dio 24. galderak bi erantzun zuzen posible dituela, galderan ez delako esaten gaixotasun baja gaixotasun arruntaren ondorio edo gaixotasun profesionalen ondorio den. Ondorioz eskatzen du galdera hori baliogabetzeko.

Epaimahaiak, erreklamazioa aztertu ondoren, honakoa erabaki du aho batez:

Lehena.- Erreklamazioa onartzea.

Bigarren.- Ariketako lehen zatiko 21. galderaren erantzun zuzentzat d) aukera hartzea eta, horren arabera, hautagai guztien ariketetako lehen zatiko galdera hori berriz baloratzea.

Hirugarren.- Ariketako lehen zatiko 24. galdera baliogabetzea, bi erantzun zuzen izan ditzakeelako eta, horren arabera, hautagai guztien ariketetako lehen zatiko galdera hori baliogabetu eta ordezko lehen galdera baloratzea.

**Ariketa teoriko edo eta praktikoa: behin betiko emaitzak**

Erreklamazioa erabaki ondoren, Epaimahaiak ariketaren lehen zatia berriz baloratu du, gorago erabakiaren arabera (21. galderaren erantzun zuzena d aukera da eta 24. galdera baliogabetuta ordezko lehen galdera zuzendu eta baloratu da).

Horrenbestez, lehen ariketaren behin betiko emaitzak onartu eta argitaratzen dira (hurrengo orrialdean).

Zarautzen, 2014ko martxoaren 7an

Xabier Urdangarin
Epaimahaiko idazkaria

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

## ARIKETA TEORIKO/PRAKTIKOAREN BEHIN BETIKO EMAITZAK

| | | 1. ZATIA | | | | | 2. ZATIA | 3. ZATIA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | TESTA | | | | | GALDERA LABURRAK | GARATZEKO GAIA | |
| **ZK** | **NA** | **zuzen** | puntuak | **oker** | zigorra | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA | **GUZTIRA** |
| 1 | 15397472F | 33 | 18,86 | 2 | 0,38 | 18,48 | 17,00 | 21,50 | 56,98 |
| 2 | 44553525H | 27 | 15,43 | 8 | 1,52 | 13,90 | 13,50 | 24,75 | 52,15 |
| 3 | 44132504N | 35 | 20,00 | 0 | 0,00 | 20,00 | 16,50 | 27,50 | 64,00 |
| 4 | 44143798J | 26 | 14,86 | 9 | 1,71 | 13,14 | 12,00 | 14,00 | 39,14 |
| 5 | 44553421Y | 31 | 17,71 | 3 | 0,57 | 17,14 | 12,50 | 25,50 | 55,14 |
| 6 | 44132614F | 26 | 14,86 | 9 | 1,71 | 13,14 | 13,50 | 16,50 | 43,14 |
| 7 | 44561528V | 25 | 14,29 | 6 | 1,14 | 13,14 | 14,00 | 20,50 | 47,64 |
| 8 | 72453741S | 23 | 13,14 | 8 | 1,52 | 11,62 | 7,00 | 10,50 | 29,12 |
| 9 | 72443904E | 22 | 12,57 | 10 | 1,90 | 10,67 | 12,00 | 13,00 | 35,67 |
| 10 | 44165130R | 26 | 14,86 | 7 | 1,33 | 13,52 | 16,00 | 19,75 | 49,27 |
| 11 | 35770840K | 24 | 13,71 | 11 | 2,10 | 11,62 | 11,50 | 18,00 | 41,12 |
| 13 | 44332325D | 33 | 18,86 | 2 | 0,38 | 18,48 | 18,00 | 19,75 | 56,23 |
| 14 | 44158719F | 23 | 13,14 | 3 | 0,57 | 12,57 | 14,50 | 22,25 | 49,32 |
| 15 | 72500586D | 24 | 13,71 | 5 | 0,95 | 12,76 | 10,50 | 11,50 | 34,76 |

Ariketa gainditzeko 35 puntu eskuratu behar dira.